

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko uztailearen 28a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Astitz • Gaur hasi eta igandea arte jaiak dira Astitzen. Gaur, Mañukorta eta Zeberio bertsolariekin egitekoa den herri afaria izanen da ekitaldi nagusia.

Iruñea Kirol Elkarteko Softbol taldea • «Zelaia behar dugu»

Erleen gotorlekua

• INAKI VERGARA



Ultzama aldeko Eltso herrian erleek badute euren etxea. Isabel Telleria tolosarraren etxea da, eta bertan intsektu hauei buruz jakin nahi den guztia aurki daiteke. Erletxen, ezta eta argizariaren produkzio fase guztiak bertatik ezagutzeko aukeraz gain, museo itxurako zerbait ere aurki daiteke, erleen mundura kasualitatez ailegatutako emakume honek bere etxeko mandioa naturaren kontserbaziorako hain garrantzitsua den intsektu honen inguruko gotorleku bilakatu baitu. Erlezaintzaren historia, erlauntza eta eztiorraeen eboluzioa, ezti motak eta beste hainbat bitxikeria ezagut ditzake bertara joaten denak.

Lizarra • Lizarra Erdi Aroan murgildua

Hiriko bazter guztiek antzinako garaien itxura hartu dute aste honetan

Hirugarren urtez jarraian, Lizarran Erdi Aroko Astea egin berri da. Garai hori aztergai duen ikerketa astearen harira, hiri osoa barneratzen da astebetex X. eta XV. Mendeen arteko bizimoduan.



Hirugarren urtez egin da jarraian Lizarran Erdi Aroko astea. • INAKI VERGARA

KLOBAKARI, BUFOI, ZALDUN, mago, trobalari, saltinbanki, malabarista, trikimako, ipuin kontalari, sorgin eta bertzelako pertsonaiak ikusi ahal izan dira Lizarran joan den aste osoan. Lizarrak itxura berri bat agertzen du astebetex; izan ere, Erdi Aroko herri batean gaudela erraz amets egin dezakegu. Zirtzil, banderatxo, zutoihal, tortxa eta kandelak ipintzen dira han eta hemen, karriketan lasto geruza bat ezartzen da, eta dendariak antzinako soineko koloretsuak janzen dituzte. Eguzkiaren izpiek argitzen dute bilakaera magiko hau egunez, eta gauean, berriz, zuziek argitzen dute hiria. Ostatueta, Erdi Aroko berezko platerak dastatu ahal izan dira, eta edariak buztinezko edalontzi berezietan zerbitzatu dira.



III. Erdi Aroko Astea uztailaren 17tik 23a bitarte egin da, arrakasta osoz. «Urtetik urtera gero eta jende gehiagok

parte hartzen du jai berezi honetan, eta giroa zoragarria da oso», adierazi digu Loreto San Martin Lizarrako Dendarien Elkartearen arduradunak. Gustavo Maeztu Museoa Erdi Aroko Ikasketen Astearen 28. ekitaldia ere egin da. Han, irakasle, ikertzaile, zientzialari, ikasle eta aditu antzeko Erdi Aroa aztergai izan duen astean parte hartu dute. Atalaia antzerki taldeak emankizun bereziak egin ditu karriketan, halaber, *Tres tristes tigres* taldeko trobalari eta ipuin kontalariak irribarre anitz so-

rrarazi dituzte. Orkestra-gizonaren kale emanaldiak ere izan dira. 1913. urtean jokatutako xake biziduna partida irudikatu zen.

Gauak bereziak izan ziren San Nikolas plazan, Amaia Zubiriak, 'Aljibe' Taldeak eta 'Joana Pons amb ses guitarres' taldeak musika jarri zioten gauari. Asteburuan Antzinako Azokak bisitatu zuen hiria. Gazta, eztia, sagardoa, gozoak eta hestekiak izan ziren salgai, eta larruz, papez, buztinez, bidrioz, egurrez, lorez, urrez eta zilarrez egindako anitz ekoizkin. Erosketak egiteko orduan antzinako txanponak erabili behar izan dira.

→ Kristina Berasain


Elizondo
•
Eguzkiaren
karrika

MIGUEL GIL MENDI ELIZONDOKOAK Txokoto auzoko Braulio Iriarte karrika miniaturan eraiki du. Lau urteko lanaren ondoren, orain Arizkunenea kultur etxean dago ikusgai. Txoko horrek, arestian, Eguzkiaren karrika izena zuen, eta egun galdurik diren etxe gehienak daude irudikatutak. Bide hori Done Jakue bidearen zati txiki bat da eta antzina nekazaritzarako etxeek osatua zegoen. Etxe aunitzek XVI. eta XVII. mendean dute jatorria. Hori dela eta, Miguel Gilek, Joaquin Lopez eta Pedro Mari Esarteren laguntzarekin, ikerketa sakona egin behar izan du galdutako etxeen kokapena, izena eta itxura ezagutzeko. Besteak beste, erreka bazterrean, larruapaintzaileen etxea dago ikusgai. Etxe hori eta beste 80 1913an izandako uholde ikaragarri baten ondoren galdu ziren. Dena den, Miguel Gil egileak gehien maite duen etxetxoa Antxitonea Trinketea da, garai batean hamaika urtez han bizi izan zelako. Etxe hori, izena dioen bezala, trinkete eta guzti eraiki du. Zura, kristala, kartoi berezia eta beste hainbeste material erabili ditu amaieran emaitzarik hoberena lortzeko. Pazientzia izugarriarekin Eguzkiaren Karrika guztia eraiki ondoren, Elizondoko etxe guztiak egitea da egilearen proiektua. Maketak sei edo zazpi metro karritu edukiko lituzke eta Miguel Gilen gogoia Baztango Udalarari oparitzea da. Bitartean, abuztuaren 26a arte, Eguzkiaren Karrika bisitatzeko aukera ederra dago Elizondon.

→ Rakel Goñi

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Ogiak eta kazetak —biok elkarri azala emanda, eta bata bestearen barnean birliduta— elkarrekin egin dute dendatik etxerako bidea eroslearen besopean.

Kazetak badakar lehenengo orrian argazki bat, goseak erabat erkindu duen haur batena. Haurra, Eritrekoa; eta, lerroburuak dioenez, aurki beste haur asko ere egon daitezke egoera bertsuan —hiltzeko moduan, alegia—, baldin eta luze gabe mendebaldeko herrialdeetatik nahikoa elikagai bi-

Ogia eta Kazeta

daltzen ez bada hurrengo egun eta asteetan.

Ogia bero dago; izan ere, labetik atera berria da. Ogi samurra da —txorizoarekin edo txokolaterekin edo zernahi saltsa gustagarritan bustirik—, eta etxeko beharrak ederki asebeteko ditu.

Eguna aurrera doa eroslearen etxean, eta ogiak bere zeregina primeran betetzen du, gustura jaten baitute etxeko guztiak.

Kazeta ere eskuz esku dabil, eta bakoitzak gogoko dituen gaiak irakurtzen ditu, lasaian. Begira-

tu egin diote argazkiko haurri, arranguraz baina. Hain da mingarria begiei erreparatzea!

Afaldu ondorengo mahaia jaso dute orain. Mahaiaren goizeko ogiaren puska bat ageri da, eta kazetarekin batera zakarrontzira doa zuzenean.

Ogiak —sobratu den ogi puska— ukitu egiten du berriro haurren ahoa. Baina haurra ez da gauza ogiaren azala antzemateko. Hila da horrenbestez. Halako zerbait zioen, bederen, kazetako lerroburuak.

Astitz • Dena prest parranda egiteko

Gaur hasi eta igandea arte ekitaldi aunitz eginen dituzte Astitzen

25en bat urte jaiotzarik gabe izan ostean, aurten ume bat jaio da Astitzen, eta hori ospatzekoa da alajaina. Hori, eta gaur hango festak hasiko direla. Musika, txokolatea eta kirol frogak ez dira faltako hiru eguneko parrandan.



Mañukorta izanen da gaurko herri afarian arituko den bertsolarietako bat. Berarekin batera, Zeberio izanen da. ● EGUNKARIA

Asteburu honetan hasiko dira Astizko jaiak, eta dagoeneko dena prest dute bertako lagunek hiru egunetan parranda egin ahal izateko. Gaur arratsaldeko zortzietan botako dute bestak hasiak direla adieraziko duen suzuria, eta horren ostean Astizko kaleetan ez da musika eta giro alarik faltako. Aterpean izanen da bestetako afaria, eta herriko auzokideekin eta inguruko lagunekin batera ongi afaldu eta gero, bertsolariak arituko dira. Agian, entzuleen artean Mañukorta eta Zeberio maisuei larraundarrek bertso onenak bota-

tzen dituztela erakutsiko dien norbait ere izanen da. Bertsolariekin eginiko herri afariaren ostean Modestoren musika izanen da entzungai, eta orduak aurrera egin ahal, gero eta gehiago izanen dira dantza egitera animatuko diren mutil eta neskek.

Hori bai, hurrengo egunetan goizeko 09:00etan diana joleak prest egonen dira ohean daudenak kalera ateratzeko, eta bezperan jandakoa eta goizean edandakoa gutxi baldin bada, ongi gosalduta

etxez etxe erronda eginez ibiliko dira gazteak eta ez hain gazteak, azken batean festak denontzat direnez, helduagoeke ere giro alaian puskak biltzeko gonbidapena jaso baitute. Ordu batzuk pasako dira erronda bukatzerako, baina inor ez da etxera joanen, mus txapelketa bostetan hasiko baita, eta musean aritzeko zaletasun handia dago Larraungo herri honetan. Aukera paregabea izanen dute, beraz, muslariek euren trebetasunak erakusteko, eta gau-

za bera egin dezakete pilota partiduan parte hartuko dutenek ere.

20:30ean musika izanen da Xapo taldearen eskutik, eta bezperan gisa, 05:00ak aldera txokolate bero-beroa izango da. Igandean, dianak jo eta gero, herritarrek eta egun hauetan bertaraino bilduko diren lagun eta senideek herri kirolen erakustaldia izanen dute ikusgai. Erakustaldi honetan Sakanako zortzi sokatiralarik herriko sei mutilen kontra eginen dute, eta ondoren txingekin, lasterka, zozkor biltzen, aizkoran eta trontzan arituko direnak ikusteko aukera izanen dute. Bazkaldu eta siesta egin ondoren, Kiki Koko, Moko eta Flax pailazoekin ongi pasatzeko eta barre egiteko aukera izanen dute etxeko txiki zein handiek. Lakuntzako Elai-Alai dantza taldekoak izanen dira ikusgai ondoren, eta bezperako muslarien artean finalera sailkatutakoek bestetako azken partidak jokatuko dituzte. Jokoa amaitu orduko prest egonen da Modesto, bere musikaz dantza egin nahi dutenak martxan jartzeko. Azken afaria eta besten bukaera, Modestoren musikaren doinupean.

→ Eli Belauntzaran



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Artze anaien txalaparta

Artze anaiek Ziburun egin berri duten txalaparta ikastaroaren berri eman du Herria astekariak bere azken zenbakian: «Gipuzkoarrak dira, Usurbilekoak, Artze bi anaiak, Joxean, 61 urte, eta Jesus, 55 urte. Mugaren bi aldeetan biziki ezagutuak, txalaparta jole arraroak direlaketz bereziki, nahiz Joxean olerkari fina ere den bestalde... Frango usu etortzen dira Iparralde huntarat. Konparazione, jaz, Sarako leize famatuen ateraino izan ziren, eta iragan asteburu hortan, Ziburun, Jesussek du kudeatu txalaparta ikastaldi bat».

Jesus Artzerekin solasaldia egin dute Herriko kideek txalapartaren inguruan, eta ondokoak dira hark errandakoak: «Duela 36 urte hasi ginen txalapartarekin. Gazte hutsak ginen, Usurbilen bizi. Behin, batere funtsik gabe jakin ginuen soinu tresna berezi bat bazela, txalaparta erraiten ziotena, eta bi bikote bazirela, bi bakarrik, oraino txalaparta hori jotzen zutenak, batto Lasarten, bestea Astigarragan. Heien ezagutza egin ginuen, txalaparta gustatu zaikun eta hola abiatu ginen...».

«Baduke zenbait mila urte txalapar-

ta jotzen dela Euskal Herrian baina jendeak bizi izan diren harpe zaharretan kausitu dira ere hezur batzu zilatatuak. Txistua, xirula eta holakoak horietarik jalgiak ditazke. Txalaparta bezen aspaldikoak izaiten ahal dira beraz... Guk, egia da txalaparta ezagutarazi dugula Euskal Herrian gairi, eskuin eta ezker ibiliaren bortxaz bainan azpimarratu nahi dutana da guk ere maixuak ukan ditugula eta eskerrak beraz oraino ere guri txalaparta jotzen erakutsi zaikun bikoteari. Zuaznabar anaiak».



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Saint.

Bere jaiotzaren ehugarren urtemuga-edo ospatzen ari direla aitzakiaz hartuta, gizon honi buruz, idazle handi honi buruz, hiru hitz lotu nahi nituzke. Berriki irakurri ditut berak idatzitako (gaztelaniaz aurkitu nituen): Tierra de hombres, Vuelo nocturno eta Carta a un rehén (uste dut horietako bat euskaratua dagoela). Hiru liburuekin kristona gozatu dut. Aurreiritzi dezenterekin murgildu nintzen irakurketan, dena aitortu behar da, Printze txikia betidanik iruditu baitzait oso liburu borobila eta duintasun handikoa. Aurreiritziek, beraz, kalitatearekin topo egingo nuela xuxurlatzen zidaten. Eta halaxe izan da. Ongi idazten zuen tipoak, bikain. Bazuen sekulako musika eta erritmoa. Musika esaten dudanean, ideien, irudien, musikaz ari naiz. Saint, idazterakoan, testu txikiekin moldatzen zen. Testu bakoitzean zein ideia zein irudierekin, islatu behar zuen ongi hausnartua zuen aurretik (atzematen da). Azken puntua bota baino lehenago lerroek gure irudimena kontzeptu eta gauza oso sinpleekin berotzen dute. Ilargitik lurrera eramaten gaitu paseoa idea eder bezain borobil bat bota aurretik. Eta dinami-tarekin egiten du jolas tipoak! Dinamitatekin; erabiltzen dituen elementuak hain dira irris-takorrak, hain dira esplosiboak, ezen edozein momentutan eskuen artean zartatuko zaizkiola iruditzen baitzaizu. Saiatu bestela «bildotsa» eta «lorea» hitzekin zer edo zer potentia idazten. Berak, aldiz, erridukulua saihesten du, eta ez hori bakarrik, testuak bukaera izugarri ederrekin ixtea lortzen du. Idazlanen emaitzek gudan sortzen dituzten zirrarak lurretik hamar zentrimetotara lebitatzen uzten gaituzten horietakoak dira. Esan dute ez ote den moralistegia. Nire kasuan, aitortu behar dizuet, nuen misantropia kezkarri bat aldentzen lagundu du. Konturatu naiz nirea ez dela anti-soziala izatea, guztiz kontrakoa baizik: hipersoziala naizela. Saini bezala, niri ere nazkagarria iruditzen zait «etorkizuneko termitegi hau, sustatzen diren erroboten birtute hauek». Saini bezala, horrexegatik zaizkit hain gorrotagarriak gizasemearen eta sozietatearen aurka ari direnak. Hau da: guztiak. ●

Erleekin maiteminduta

Isabel Telleria erlezainak erleen mundua eraman du bere etxera

Eusko Jaurlaritzaren proiektu batek kasualitatez eraman zuen Isabel Telleria albaitari tolosarra Antofianako erletxe batera (Araba). Hantxe gerturatu zen lehen aldiz erleen mundura, eta harrezkero, bere bizitza intsektu hauei eskaini die. Erlezain profesional honek Nafarroako hainbat ingurutan ditu bere erlauntzak, eta intsektu hauek emandako ezti eta argizariari esker bizi da. Ordainean, animalia txiki hauei gorazarre egin nahi izan die bere Eltsoko etxea erleei eta erlezaintzari lotutako gauzez josita.



Erleak, erlezainek jarritako ezti-orrazak betetzen.

INAKI VERGARA

N AFRROAKO HAINBAT BAZTERRETAN sakabanaturik dituen erlauntzetako batetik etorri berri da Isabel Telleria bere mutil-lagunarekin gurekin zuen hitzordurako. Autoaren atzealdean ezti-orrazez betea daktartela, hurrengo egunetarako lanik ez zaie faltako. Lanegun gogorra izan duten arren, Isabelek bere etxera sartzeraz gonbidatu gaitu berehala. Beheko solairuko gela batean erleen gaixotasunak eta eztiaren kalitatea aztertzeko laborategi bat moldatzen


ari da; oraindik ez dago erabat prestatuta, baina bere helburuen artean «Nafarroako eztiak tipifikatu, eta berezko label bat sortzea» dago. Aldamenean, berak egiten dituen produktuen lagin bat ipini du Isabelek denda itxurako gela txiki batean, argizariak, ezti eginko txokolatetako eta marmeladak, xaboi pastillak, erromero, ezka, izpiliku, eta ainar eztiak besteak beste. Handik metro gutxira, ezti eraberritu eta kontserbatzeko makina eta ontziz jositako gelan, autoan

ekarri berri dituzten ezti-orrazak pilatzen ari da bere mutil-laguna Isabelek ontzi eta makina haien funtzioa azaltzen digun bitartean. Etxeko bazter guztiek erleekin zerikusia dute, eta ez da gutxiagorako, Isabelen hitzetan nabaria baita intsektu hauek beregan sortutako zirrara.

Polinizazioaren garrantzia
Erlezaintzara kasualitatez ailegatu zela lotsa gabe aitortzen badu ere, begi-bistakoa da, behin mundu horretan sartutakoan, inor gutxi bezala kontzientziatu dela erleen aberastasunaz. Normalean erleak ematen dutenagatik dira estimatuak, ezti eta argizariagatik batik bat, baina, Isabelen

Bere Eltsoko etxean prestatzen ari den laborategian Nafarroako eztiak tipifikatu eta berezko label bat sortzea gustatuko litzajoke Isabel Telleria albaitari tolosarrari

ustez, «ezti ematearena anekdota hutsa da, polinizazioa baita, dudarik gabe, erleen lanik garrantzitsuen» Isabelek dioenez garbi dago erleak dabilzan inguruetan naturaren bilakaera askoz hobea dela, eta hori guztia polinizazioaren eragina litzateke. «Polinizazio lan honen truke landareek erleei emandako oparia besterik ez litzateke izanen ezti», eta gaur egun erlezainek dituzten erleak bakarrik daudenez (barroa izeneko gaixotasun batek desagerrarazi egin ditu gaur egun erlauntza basatiak), intsektu hauek naturan duten funtzio biologikoa gehiago zaindu beharko litzatekeela uste du Isabelek. Erleak dabilzan inguruetan, landareak osasuntsuagoak dira eta bere erreproduktzioa bermatzen dute intsektuok; horregatik, Estatu Batuetan eta beste toki batzuetan, laborantza zelaietan, erleak polinizazio lanetarako espreski askatzen direla ere badaki Isabelek; «hemen ere, erleek egiten duten lan onuragarria dela eta,



diru laguntzak eman behar lirateke.

Museotik bueltatxo

Protagonistak erleak eta etxea direla esaten

“Ezti ematearena anekdota hutsa da; polinizazioaren truke landareek erleei emandako oparia besterik ez da ezti, polinizazioa baita, dudarik gabe, erleen lanik garrantzitsuen»

nez, Isabelek ez zuen nahi izan berari argazkirik ateratzerik, eta, halaber, argi utzi nahi izan zigun bere etxea ez dela museo bat; baina, egia esan, museo batek izan behar lukeen guztia dago Eltsoko Erletxe etxeko mandioan: erleei buruzko informazio aunitz izateaz gain, nahi duena joan baitaiteke bertara sarrerarik ordaindu gabe, eta, lanak uzten badiu behintzat, Isabel bezalako bide erakusle ezin hobearekin. Inolako diru laguntzarik gabe egin du guztia, eta zinezko gauzen usaina etxeko bazter guztietan nabari daiteke. Museo bat baino gehiago, erleak benetan maite dituen pertsona batek haiei eginiko omenalditxo bat litzateke Isabelek etxeko sabaian duen erakusketan.

Erlezaintzaren historiari buruz ari zaizkigu mandiora daraman eskailera ilaran



Gela honetan garbitu eta gordetzen du Isabel Telleriak bere erlauntzetatik ekarritako ezti-orrazetako ezti. INAKI VERGARA

Nafarroa toki ona derlezaintzat

Ezti egiteari dagokionez behinik behin, «oso toki ona da Nafarroa derlezaintzat», Isabel Telleriaren ustez, «klima mota bat baino gehiago izaki, inguru berean ezti klase ugari egin baitaitezke». Isabelek Ultzaman, Marañonen, Uxuen eta Pitillasen ditu ezti-orrazak besteak beste, eta urte sasoiaren arabera, erromero, ezka, ainar edo beste landare ugariatik lortutako ezti izaten du. Erlezainen lana erlauntzak zaindu, ugalketak egin eta ezti jasotzea eta gordetzea litzateke, eta Nafarroan aukerak badira

laorretarako; halere, hamar erlezain profesional besterik ez daude, hobby bezala erle dabilzanak gehiago diren arren (500 pona daude erlezain bezala eroldaturita Apina erlezainen elkartearen 300 bazkildira). Isabelen ustez, supermerkatu eta denda handietan saltzen den eztiaren prezioa ezin lehiatua da arazoz garrantzitsua, «kalitateari dagokionez, erlezainek egindako ezti ezti izeneko beste produktuekin alderatzerik ez dagoen

ikusgai diren koadro eta notatxoek. K.a. 6000. urteko labar-pinturetan erlezaintza aspalditik datorren artea dela jakin daiteke; geroagoko kontuen artean, berriz, 1927 eta 1945 bitartean Leon Lacasia izeneko apaiz nafar batek Iruñeko Arrotxapea auzoan martxan jarri zuen Nafarroako Erlezaintza Eskolarena bitxia da gutxienez. Historiari dagokionez eskaileratan amaitzen bada ere, mandioa ere ikusgarria da. Leio handi batek Ultzamako zelaien edertasuna ikusten uzten digula, argizariak garai bateko hiletetan zuen garrantzia gogoratzen digute Nafarroako hainbat lekutako argizariok. Haien ondoan, Nafarroako mendietan, erdialdeko zonaldean eta Erribera aldean erabiltzen ziren erlauntza motak dira ikusgai, behi gorozkiekin bildutako zume pus-kak, barrutik hustutako zuhaitz enborrak, Bardeako lurra bustiz lortutako lokatzarekin eginiko erlauntzak, denak daude ikusgai, erlezaintzaren garapenerako hain garrantzitsuak izan ziren lehen ezti-orraz mugikorren ondoan. Amaitzeko, polinizazioaren garrantzia agerian uzten duten irudi batzuk ikusi ditugu, eta berriro beheko solairura jaitsi gara; han, bere proiektuez hitz egiten hasi zaigu Isabel Telleria. Ez omen du ezertarako astirik ateratzen, baina etxe atzean argizariagatik bat eraikitzeko asmoaz gain, bisitariak zenbait ezti klase dastatzu pasieratxo bat egiteko aukera izan dezaten etxe atzeko zelai ederra egokitzekoan da; mandioa gauzak hobetu naian ere badabil, eta laborategia martxan jartzea ere ezin du burutik kendu.

Agurtu aurretik, dendetatik pasatzera gonbidatu gaitu, berak egindako ezti eta marmelada etxean dastatzeko oparitu eta gehien interesatzen zitzaiona galdetu digu: «Bisita gustokoa izan al duzue?». Erantzuna bakarra izan zitekeen, eta bisitariak hainbeste aldiz esandako hitzak eta oraindik beste hainbatetan esan beharrekoak bere aurpegiak islatzen duen ilusioarekin esaten jarraitzen badu, guztiegi gustatuko zaie Isabel Telleria tolosarrak Eltson duen erleen gotorlekua. Lanik ez zaio faltako, baina bere lagun erleak han izanen ditu beti!

Asier Legarda-creñó



Garai batean, hiletetan sekulako garrantzia zuten argizariok. Bere izenak dioten bezala, argizaria duten oholak dira, hilak lurperatu bitartean pizturik eduki beharrekoak. INAKI VERGARA

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Zenbait edizio faksimile berriez (II)

Euskal testu zaharrak laket ditugunok pozez hartu dugu oixtian karrikara zenbait faksimilen ateraraztea, tartean orain arte guztiz kausigaitzak direnak ere bai



Iruñeko liburu dendetara iritsitakoen artean Leopoldo Zugazaren zaintzapekoan inprimaturiko hiru liburu daude, Mogel eta Zamakola bizkaitarren bana, eta Euskaltzaleak elkartearen asmoak jasotzen dituen beste bat. Leopoldo Zugaza euskaltzale ezaguna liburuaren munduarekin hertsiki lotuta dagoen pertsona da. Durangoko liburu azokaren sortzaile eta bultzatzaileetakoa, editorea dugu, baita *Gaiak* aldizkariaren sortzailea ere 1976az geroztik. Oraingo honetan, Zarauzko Olerti Etxea izeneko argitaletxeak ahalbideturik, Gizonak&Lanak bibliofiliako lanen bilduma kudeatzen digu Zugazak, eta hortxe kokatu behar ditugu aipatu lanok. *Euskaltzaleak zertarako? Acción Popular Vasca: su finalidad, su organización, su programa* izenburu argigarriko lana da Zugazaren beraren sarrera eroaten duen hirutako bakarra, sobera harriztekoa ere ez dena, izan ere, Zugaza elkarkidea baita. Liburuxka polita, koloreetan eta irudiekin, 300 ale zenbakiduneko jaulkipen hau liburuzaleendako harribitxia dugu dudarik gabe.

Mogel

Juan Antonio Mogel bizkaieraren idazle klasikoaren lan batekin ematen zaio hasmenta bilduma honi, berriz. *Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos o demostración práctica de la pureza, fecundidad y eloquencias del idioma Bascuence contra las preocupaciones de varios escritores extraños y contra algunos bascongados que sólo tienen una noticia superficial del idioma patrio* izenburu arnases-

tugarriko itzulpen bidezko lan apologetikoa dugu, Tolosako Francisco de la Lamaren etxean 1802an inprimatu zena. Faksimilearekin batera Adolfo Arejitaren sarrera datorkigu, Mogelen bizitza eta lanez gain *Versiones Bascongadas* honen kokatzeko saiotxoare-



kin. Mogelek eginiko itzulpen hauek argitaratu ahal izana nabarmentzen digu Arejitak gutxi gehien, alabaina ezin da ahaztu Mogelek beste lan apologetikoak ere argitara eman zituela arazo handirik gabe. Hauen artean Historiaren Akademiak argitara ematen zuen *Memorial histórico español, colección de documentos, opúsculos y antigüedades* izatera entziklopedikoko bildumaren barruan eta bere 1854ko zarpigarren liburukian agertu zen *Cartas y disertaciones de don Juan Antonio Mogel sobre la lengua vascongada: disertación histórico-geográfica sobre los iberos*

y sicanos que entraron en Italia, en el Lacio y territorio de Roma introduciendo el idioma vascuence

aipatu beharra dago. Mogelen lan hau Gari-bairen oroitzenak eta erranairuak jasotzen zituen liburutzarraren epilogo moduan atera zen, baina baita aparte-ko liburuxka gisa ere, eta separata huraxe da hain zuzen ere orain dela bost urte Valentziako Paris argitaletxeak faksimilean atera zuena.

Zamakola

Gizonak&Lanak bildumaren bigarren zenbakia, azkenez, Juan Antonio Iza Zamakola *Don Preciso* zenaren *Perfecciones analíticas de la lengua bascongada* dugu, Bilboko Misericordia etxean Felipe Moralesek inprimaturik 1822an karrikaratu zen lana zehazki. Hamalau orrialdeko lan faksimilearen aurretik Xabier Kaltzakortak ondu sarrera luzeagoa dugu, 30 orrialdekoa, ez ordea, geure uste apalean, Zamakola bezalako idazle interesgarriak beharko lukeen bezainbeste-koa. Esate batera, eta adibide soil gisa, interesatuta dauden bibliografia ematen hasiz gero, ezin utzizkoak diren lanak ez ematea huts nabarmena litzateke, eta horra hor, besteak beste, Kaltzakortaren sarreran falta diren Basurtoren «Elementos neoclásicos...» RIEV-eko artikulua, Herguetaren *Don Preciso* liburua, edota Nietoren *La obra de Juan Antonio Iza Zamakola* foiletua. Bestalde, eta Zamakolaren faksimileak lortu gogo lituzketenek jakin behar dute gorago aipatu Valentziako Paris argitaletxeak aspaldidanik dituela Don Precisoren lan folklorikoak salgai, baita Madrilgo lagunek ere, *Crotalogia* eta beste. Valentzia urruti bada ere, Paris liburu dendaren katalogoak errazki atxiki daitezke Interneten bitartez, beraz, klikatu eta josta!

Patziku Perurena



Kultura aberekoia

Babilondarrek, harrisi gainera igoz, iseka keinuak egiten zizkietan Dario-ri eta honen gudarosteari, eta haietako batek hitzok esan zizkien: «Pertsiarrek! Zertarako zaudete hemen egonean? Aitzitik, zergatik ez duzue alde egiten? Mandoek umea egin dezaketenean, orduan eskuratuko gaituzue» honela mintzatu zen babilondar bat, mandok sekulan umerik egin ez zezakelakoan. Horrez gainera, eternidadea adierazteko hala esan ohi dugu euskaldunok: «Oiloak pixa egin arte».

Eta zenbat diskutio mutikotan, mandoaren sorreraz? Asto emeari zaldia botata, jode! Ezetz ba: behorra astarrak estalita! Herodotok hala dio: «ele-arrek madarikazioren bategatik ez zaiela mandorik sortzen esaten dute. Dena den, behorrek iheltzen diren sasoirako, auzoko herrietara eramane eta astarrak gaineratzen zaizkie, eta umatzen direnean, ekarri egiten dituzte atzera». Hala izanen da, orduan. Eta zaldiak astemea ernari baleza?

«Szythiako lurralde osoan, hotza dela eta, ez da astorik ez madorik hazten. Beraz, astoak harrotzean, szythiarren zalditeria asaldatzen zuten. Eta sarrri, pertsiaeren aurkako erasoen erdian, zaldiek astoen arrantza aditzean, asaldaturik atzea eman ohi zuten, eta belarriak tente gelditzen ziren harriturik, lehenago halako hotsik eta aberejerik ikusi gabek zirelako». Jendea bezalaxe, animalari arrotz asko bertakotu da beraz munduan. Gemeluen itxurak eta arrantzak eragin berbera sortzen zuen zaldien gan, herri arteko gerrate zahar askotan.

«Iruditzen zait idi kasta adarmotzari horregatik ez zaizkiola hazten adarrak Szythian; eta nire iritziazen lekuko da Odysean dagoen Homeroen bertso hau: «eta Libya, non berehala arkumeak adardun

diren». Ongi esana, lurralde beroetan azkar sortzen dira adarrak; hotz gogorrekoetan, ordea, inola ez da adarrak jaiotzen edota jaiotzen badira nekez dira hazten». Horregatik ote adarretan honen motz euskaldun ezkonduok?

«Szythiarrek, begiak estaliz itsutu egiten dituzte esklabotak, beren lan nekosoetan aise-gori ari daitezten; esate bateko: xirulen antz atzekoak diren tu-tuak hartu eta behorren partetan sartu eta, batzuek ahoz putz egiten dieten bitartean, besteek jeitzi egiten dituzte. Behorren zainak haizatzean, hazi eta errapea jaitzi egiten omen zaie eta. Gero esnea jetzi ondoren, zuzeko ontzitarra isuri eta, ontzien arabera le-rrokatuz itsuek, esnari eragiten diote, eta goian geratzen den esnegaina hobetzat jotzen dute». Orain ez dugu begiak estali beharrik, diruak itsutzen baitu mundu osoko jende librea(?) lan asper eta xurira.

«Szythiarren lurra guztiz egurgabea delarik, jainko opariak egosteko hara zer asmatu duten: idi opalduak larrutu ondoren, hezur guziak kendu, eta haragia pertzara botatzen dute, eta pertzik ez badute, idi opalduaren sabel zorrorra haragi guztia bota, ura nahastu, eta hezurak erretzen dituzte azpian, eta honela idiak berak erretzen du bere burua». Gure elizetako heriotz agiritan ikus litezke nonahi «dejó (jainko oparizat) un buey, un carnero» endemas XVI-XVII. mendetan.

«Hona libiar nomadek dituzten sinesteak: lehenik aberearen belarri zati bat eskaini eta gero etxe gainera botatzen dute; eta hori egin ondoren, lepoa bihurritzen diote. Eguzkiari eta ilargiari bakarrik egiten diote opari». Orain hiru mila urte libiarrek (afrikarrek) nola, guk halatsu zerri hiltzekoan: «beazuna kendu ta jaurti teiltaturat» dio Orixek, inor pozoi bildurrez, eta neroni ikusia nago askotan.

Ziria

• Motxorrosolo •

Beherakada

Zinez kezkarria partaidetzan nozituriko beherakada. Miramar-ko jitea antzematen omen zaio. Aspaldiko estakuruek bere horretan diraute. Berritasun gutxi teknologia berrien garaian. Oro berrikusteko tenorea heldu zaigu.

◉ Iruñea Kirol Elkarteko Softbol taldea ◉

«Zelaia behar dugu»

Iruñea Kirol Elkarteko Softbol taldeko neskek Espainiako Lehen Mailako Txapelketa irabazi berri dute. Lehiaketa hilaren 15 eta 16an jokatu zuten, Coruñan, Getxoko Hartzak, Madrid Softbol Elkartea, Oviedoko San Lazaro, Irungo San Marcial eta Coruñako Piratas taldeekin batera. Nafarrak onenak izan ziren.



soslaia

● EGUNKARIA

Iruñea Kirol Elkarteko kide guztiak pozik dira softbol taldeko neskek lortutako txapelarekin. Taldeko entrenatzaile Mikel Sanzekin, Naiara Eguren arduradunarekin eta Maite Azparren eta Uxue Itoitz jokalariekin solasaldia egin dugu, eta, talde osoaren ize-nean, euren lanaren eta etorkizunerako dituzten asmoen berri eman digute.

■ Berrito Ohorezko Mailara, ezta?

Bai. Iaz jaitsi ginen eta aurten Espainiako Lehen Mailako Txapelketa jokatu eta irabazi dugu, Lehen Mailan ez baitago liga erregularririk. Hilaren 15 eta 16an jokatu genuen txapelketa, Coruñan. Denera, bost partida jokatu genituen. Txapelketa gogorra izan da, ez bai-kenituen talde guztiak ezagutzen, eta ez genekien zer gertatuko zen. Promozioa behintzat jokatzeko zen gure asmoa, eta, azkenean, txapelketa irabazi dugu. Oso pozik gaude berrito Ohorezko Mailan ariko garela.

■ Ohorezko Mailan badago ligarik?

Bai, hurrengo denboraldian Ohorezko Mailako Ligan jokatuko dugu. Estatu mailako Liga da. Nafarroako bi talde gaude, gu eta Burlatako Arga taldea, baina Argak promozioa jokatu behar du eta, be-

raz, baliteke Lehen Mailara jaistea hurrengo denboraldian. Argak mailari eutsiko diola espero dugu, Nafarroarentzat hobe delako Ohorezko Mailan bi talde izatea, eta errazagoa delako den artean ditugun arazoei aurre egitea.

■ Zer motatako arazoak dituzue?

Zelairik ez izatea da arazo larriena, eta behar dugu. Oraindik ez dakigu datorren denboraldian non jokatuko dugun eta erakundeek ez dute arazoa konpontzeko borondate handirik erakutsi. Oztopo askori egin behar diogu aurre; batetik, nesken talde bat garelako, eta, bestetik, softbolean aritzen garelako. Ez da oso kirol ezaguna eta hori nabaritu egingen da.

■ Ez duzue jarraitzaile askorik?

Oso jende gutxi etortzen da gure partidak ikustera, eta, materiala lortzeko ere, arazo

asko izaten ditugu. Jantziak hemen ez dituzte egiten, eta beisbolko selekzioko mutilen bat kanpora doanean, hari eskatzen diogu materiala ekartzeko. Hala ere, Nafarroatik kanpo gu baino okerrago daude oraindik. Talde askok euren sakelatik ordaintzen dute guztia. Guk, behintzat, Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen dugu, eta Nafarroako Kutxak ere Ohorezko Mailan ari diren taldeei laguntza ematen die. Diru horrekin eta gure sakelatik apur bat jarritz moldatu egingen gara.

■ Jarraitzaile gutxi duen kirola izanda, zuei nola piztu zaizue zaletasuna?

Iruñea Kirol Elkarteak San Fermin Ikastolan du harrobia. Hortik neska gazte asko sartu da taldean. Besteok norbait ezagutzen genuelako hasi gara taldean. Pixkana-

Duela hamazazpi bat urte sortu zen Iruñea Kirol Elkarteko softbol taldea. San Fermin Ikastolan du taldeak harrobia. Talde gaztea da, hemezortzi urtekoa baita jokalarien batez besteko adina.

Astean hirutan entrenatzen dira jokalariek, Mikel Sanz entrenatzailearekin. Jaurtiketak eta defentsa lantzen dituzte. Nesken lanak eman du emaitzarik eta Espainiako Lehen Mailako txapelketan gehien bateatu duen taldea izan da nafarra.

Maite Azparren, gainera, txapelketako bateatzailerik onena izendatu zuten, eta Beatriz Morales taldekidea, berriz, lehiaketako jokalaririk onena. Datorren denboraldian Ohorezko Mailan erakutsiko dute Iruñea Kirol Elkarteko jokalariek neskek ere zer erran asko dutela softbolaren eta kirolaren munduan.

ka-pixkanaka taldea handitzen joan da eta orain talde polita dugu. Talde gaztea da eta, orain arte bezala lanean jarraitzen badugu, hemendik bizpahiru urtera oso talde ona izan dezakegu.

■ Beisboletik dator softbol kirola. Zeintzuk dira ezberdintasun nagusiak?

Beisbolean pilota goitik jaurtikitzen da, eta softbolean, berriz, azpitik, gerri azpitik. Pilota, gainera, handiagoa da softbolean, eta, ondorioz, ez du hainbesteko abiadura hartzen. Softboleko zelaiari dagokionez, txikiagoa da, eta baseen artean distantzia txikiagoa dago. Softbola beisbol arina dela diote, eta hala da, baina ez da neskentzako beisbola. Egia da neskak beisbolean ez direla aritzen, baina mutilak softbolean, bai. Gai-

nera, softbolean pilota ongi jaurtikitzea oso zaila da, eta neskak beisbolean aritzeko gai ere badira.

■ Noiz hasiko duzue denboraldi berria?

Oraindik ez digute egutegia bidali, baina apirilean edo maiatzean hasiko da Liga, eta ekaina arte iraunen du. Zortzi talde ariko gara aurten eta baliteke Liga bi taldetan banatzea.

■ Denboraldi berrian, zein da zuen helburu nagusia?

Mailan sendotzea eta finkatzea. Oso pozik gaude Ohorezko Mailara itzultzea lortu dugulako, baina badakigu hurrengo denboraldia oso zaila izanen dela, esperientzia handiko taldeak daudelako. Baina ilusioz beteta gaude.

→ Edurne Elizondo

«Oztopo askori egin behar diogu aurre. Batetik, nesken talde bat garelako, eta, bestetik, softbolean aritzen garelako; softbola ez da oso kirol ezaguna eta hori nabaritu egingen da»



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Sanferminen ondoko hibernazioa

Jakina da zenbait abere negu partean lozorro sakonean sartu eta handik hilabete batzuetara ernatzen direla, udaberriko lehen eguzki printzekin batera. Gizakien artean, berriz, informazioari dagokionez batez ere, udan izaten da hibernazio hori. Nafarroan, batez ere, nabarmena izaten da hori sanferminen ondotik. Jendea oporretan eta berri agortelata. Gran hermano ere bukatu zaigu eta gai interesgarri horretaz ere ez dugu solasten adituko kafea hartzen dugun bitartean, pentsa! Zutabe honetan idatzi behar zuenak ere txandapasa egin du eta nik estali behar zuloa. Aurtengoan futbola gorroto dutenek ez dute atsedendiraiko asti handirik izan eta, Eurocopa akitu orduko, hor hasi zaizkigu lehen mailako lau talde nafarrak —Gaizka Arangurenen ildoari segituz—denboraldi-aurreko saio aspergarriak eskaintzen (Telebista ikusten dugunontzat, behinik behin). Futbola maite dugunok ere aspertzen hasiak gara, dagoeneko. Frantziako Tourreko podiumean berriz ere nafar bat ikusi dugu (Lazkaokoa), Miguel Indurainen garai hoberenak gogoratuz.

Politikan, Miguel Sanz gure lehendakari jaunak bereak bota zituen herenegun erregimeneko egunkarian. Giza genoma aztertzen ari direnak beraien teoriak berraztertu beharko dituzte. Geneen % 98 tximuen berdinak omen ditugu giza-kiok, baina Migelicoren kasuan, ez dakit guziak berdinak diren (tximuek barka dezatela atrebentzia) edo bakar bat ere ez dagoen bere lekuan.

Udak, beti bezala, trafiko istripu ugari ekartzen dizkigu, eta inoiz aldatuko ez den kontua dirudi horrek. Orain arte hain zurrak zen Concordeak ere bere lehen istripu larria izan du. Horiek guziak erdi lozorroan hondartzako gramoletan (oraingoan Balerdi Balerdiko baimenaz) aditzen diren berriak dira. Udazkeneko lehen hozkirriak, jertseak ez ezik, berri gehiago ekarriko al dizkigu!

gure aukerak

MUSIKA

- **Zugarramurdi:** Bihar, Zugarramurdiko kobazuloetan, 20:00etatik aurrera Jabier Muguruza, Faltriqueira, Etzakit, Hijas del Sol, Oskorri, Luar Na Lubre eta Xuia Reggae Band taldeak ariko dira. Sarrerak 2.500 pezeta balioko du. Igandean, Maddi Oihenaar eta Pier Paul Berzaitz, John Whelan, Lucrecia, Eric Riggler & Bad Haggis eta Alaitz eta Maider izanen dira.

ZINEA

- **Cordovilla:** Gaur, 22:00etan, *Notting Hill* pelikula emanen dute, frontoian.
- **Oleja:** Igandean, 22:00etan, *Notting Hill* pelikula eskainiko dute, herriko plazan.
- **Atarrabia:** Datorren ostegunean, Benito Zambrano zuzendariaren *Solas* pelikula eskainiko dute. 22:00etan, Bakearen plazan.
- **Iruñea:** Datorren asteazkenean *Toy Story 2* filma emanen dute, Foru plazan, 22:00etan.
- **Zangoza:** Datorren asteazkenean, 22:00etan, *Las fuerzas de la naturaleza* filma eskainiko dute, Rincon del Carmen plazan.

ANTZERKIA

- **Lekin:** Gaur, 22:00etan, Teatro bajo la arena antzerki taldeak *Ubú bajo la arena* antzerki lana eskainiko du, herriko frontoian.
- **Ihabar:** Bihar, 22:00etan, TEN pinpilinpauza antzerki taldeak *Zapatak hondaturik* izeneko lana eskainiko du, herriko plazan.
- **Urzainki:** Igandean, 22:00etan,

En la lona antzerki taldeak *La vida es circo* antzezlan eskainiko du, herriko frontoian.

- **Atarrabia:** Asteartean, Gorakada antzerki taldeak 3tik 7 urtera bitarteko umeentzako *Caperucita Roja* txotxongilo ikuskizuna eskainiko du. 18:00etan, Martiket igerilekuan.

ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Irailaren 3a arte, Jaime Urrutia kaleko 23 zenba-

kian, Tomas Sobrinoren pintura lanak ikusgai izanen dira. Goizetan, 11:00etatik 13:00ak arte, eta arratsaldeetan, 19:00etatik 21:00ak arte.

BESTELAKOAK

- **Egues:** Egues ibarreko Udalak bidaia ludiko-kulturala antolatuko du ibarreko emakumeentzat irailaren 15erako. Egun bateko irteera izanen da: goizean, Donostiko La Perla bainuetxera; ondotik,

Lesakara bazkaltzera, eta amaitzeko, Sarako haitzuloetara. Izen-ematea abuztuaren 1a baino lehen egin beharko da, Egueseko udal-txean.

- **Iruñea:** Karrikirik ikasleen pisuak euskaldunetaz betetzeko zerbitzua abiatu du. Euskalduna bazara eta pisu bila bazabiltza, edo zure pisuan euskaldunendako lekua baduzu, zoaz Karrikirira (Xabier karrika, 2bis) edo hots egiezu (948-222589).

• IÑAKI VERGARA



Lur azpiko bitxikeriak

Argazkian ikus daitekeena iruindarren begi-bistatik at egon da hainbat urtetan. Iruñeko baluarte da, eta barregarria dirudi, baina Iruñeko auto aparkalekurik handienetako bat egon da hainbat urtetan orain zulo handi hori ikus daitekeen toki berean. Auditorio berria egin behar dutela eta lurra harrotzeari ekin zioten, eta iruindar askok ezagutzen ez zituzten harresiak azaldu dira denen begietara. Irogailu batean jaitsi beharko den arren, auditorioa eraiki ondoren ere bitxikeria hori ikusten jarraitzeko aukera izanen omen da. Orduan, sarrera ordaindu egin beharko da agian, baina lau gurpileko burdin puska horien azpian ezkutaturik ez da gehiago egonen behintzat.